

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Grekoa II

USE 2020

www.ehu.es



GREKOA II

GRIEGO II

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea.

- Proba idatzi honek atal bi ditu, A eta B; biak egin behar dituzu.
- A Multzoan aukera bi daude (A.1 eta A.2): bati erantzun behar diozu. Aukera bakoitzean itzulpen-ariketa bat (5 puntu), eta testuari lotutako hiru galdera.
- B Multzoak hiru galdera ditu, bakoitzak puntu batekoa; galdera bakoitzean aukera bakar bati erantzun behar diozu.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

- Esta prueba escrita tiene dos bloques, A y B: debes hacer los dos.
- En el bloque A hay dos opciones (A.1 y A.2): debes hacer solo una de ellas. Cada opción consta de una traducción (5 puntos) y tres cuestiones ligadas al texto (dos puntos en total).
- El bloque B consta de tres cuestiones, cada una de ellas tiene el valor de un punto; en cada cuestión debes responder a una única opción.

En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.



A MULTZOA: Itzulpena eta testuari dagozkion galderak

(Bi itzulpen-ariketa ditu, A1 eta A2, eta testu bakoitzari dagozkion hiru galdera. **Haietako bat itzuli behar duzu, A1 edo A2, eta dagozkion galderei erantzun behar diezu)**

A1 TESTUA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei (itzulpena: 5 puntu).

Apolodoro, *Epitomea* 7.37

Telegonok Odiseo hil du, eta hildakoan ezagutu du.

Ἀναγνωρισάμενος δὲ αὐτὸν καὶ πολλὰ κατοδυράμενος, τὸν νεκρὸν καὶ τὴν Πηνελόπην πρὸς Κίρκην ἄγει, κάκει τὴν Πηνελόπην γαμεῖ. Κίρκη δὲ ἑκατέρους αὐτοὺς εἰς Μακάρων νήσους ἀποστέλλει.

A1 testuari dagozkion galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: Κίρκη δὲ ἑκατέρους αὐτοὺς εἰς Μακάρων νήσους ἀποστέλλει. (1 puntu)
2. Aditz honen analisi morfologikoa ἀναγνωρισάμενος Joka ezazu aditz hori indikatiboko orainaldian, boz aktiboan. (0,5 puntu)
3. Izen honen analisi morfologikoa: νήσους. Deklina ezazu izen hori singularrean. (0,5 puntu)

A2 TESTUA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei (itzulpena: 5 puntu).

Lisias, *Eratostenesen heriotzaren defentsan*, 1.11

Umearen negarraren seinalea

προϊόντος δὲ τοῦ χρόνου, ὧ ἄνδρες, ἦγον μὲν ἀπροσδοκῆτως ἐξ ἀγροῦ, μετὰ δὲ τὸ δεῖπνον τὸ παιδίον ἐβόα καὶ ἐδυσκόλαιεν ὑπὸ τῆς θεραπαίνης ἐπίτηδες λυπούμενον, ἵνα ταῦτα ποιῆ· ὁ γὰρ ἄνθρωπος ἔνδον ἦν.



GREKOA II

GRIEGO II

A2 testuari dagozkion galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: προϊόντος δὲ τοῦ χρόνου, ὧ ἄνδρες, ἦκον μὲν ἀπροσδοκῆτως ἐξ ἄγροῦ. (1 puntu)
2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἦκον. Joka ezazu aditz hori indikatiboko inperfektuan. (0,5 puntu)
3. Izen honen analisi morfologikoa: δεῖπνον. Deklina ezazu izen hori pluralean. (0,5 puntu)

B MULTZOA: Galderak

(Hiru ariketa ditu, bakoitzak puntu bat balio du; **galdera bakoitzean aukera bakar bati erantzun behar diozu**)

B1. Bietariko bati erantzun

- a) Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: νεκρόν. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak. (1 puntu)
- b) Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: παιδίον. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak. (1 puntu)

B2. Bietariko bati erantzun

- a) Tragedia grekoa: Euripides. (1 puntu)
- b) Komedia grekoa: Aristofanes. (1 puntu)

B3. Bietariko bati erantzun

- a) Aristofanesen *Lisistrata*: obraren argumentua. (1 puntu)
- b) Eskiloren *Koeforoak*: obraren amaiera. (1 puntu)



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

GREKOA II

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisisian eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzeagatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzeagatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatutako obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri diren ala ez islatuko du.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirila